

PRENTSA OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatua bildu da gaur

Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatua batzartu da gaur eta bileran honakoak izan dira: Iñigo Urkullu jauna, Patronatuaren Presidente eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria; Unai Rementeria Maiz jauna, Bizkaiko Ahalduen Nagusia eta Fundazioaren Batzorde Betearazlearen Presidente; Juan Mari Aburto jauna, Bilboko Alkatea; Cristina Uriarte andrea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua; Lorea Bilbao andrea, Euskara eta Kultura Foru Diputatua; Pilar Aresti andrea, Ohorezko Kideen Batzordearen Presidente; Fundazioaren gobernu-organo gorenaren zati diren enpresen eta erakundeen ordezkariak; eta New Yorkeko eta Bilboko Guggenheim Museoen Zuzendariak, Richard Armstrong jauna eta Juan Ignacio Vidarte jauna, hurrenez hurren.

Bilera honetan Fundazioaren 2015eko ekitaldiko kontuak onartu dituzte, eta urteko lehen bost hilabeteko jardunaren emaitzen berri eman zaie. Aipatzekoa da bisitarien kopurua, iazko data bereko datuekin alderatuta %7 handiagoa baita; arte-programazioak erakarri ditu, Andy Warhol-en, Louise Bourgeois-en eta Parisko Eskolaren erakusketek bat egin baitute; azken horretan, Calder-en, Delaunay-ren, Modigliani-ren eta Picasso-ren lanak daude.

Halaber, Museoak 2017rako taxutzen diharduen arte-proiektuen aurrerapenak jakinarazi zaizkie Patronatuko kideei. Tartean dira XIX. mende amaierako arteari eskainitako *Mende amaierako Parisko abangoardiak: Signac, Bonnard, Redon eta garaikideak* —bereziki neoinpresionisten, nabis taldearen eta sinbolisten lana ikergai izango duena—, nahiz oihalgintza jorratutako Anni Albers artistari eskainitakoa; azken horretan 1925etik 1960ko hamarkadaren amaiera arteko serieak xehetasunez aztertuko dira. Horrez gain, Pello Irazuri eta Bill Violari atzera begirako bana egingo zaie. Irazuren erakusketak ibilbide itxura izango du eta hiru hamarkadetan eskulturgintzan, argazkilaritzan, marrazkigintzan eta horma-irudigintzan jorratutakoak ikertuko ditu. Bill Violaren erakusketak, aldiz, gai izango du artista aitzindari izan dela bideoaren erabileran eta irudia mugimenduan jorratzen duten lanen sorreran. Era berean, Espresionismo Abstraktuaren eta haren erakusle gailenen erakusketa handi bat hartuko du Museoak, azken 60 urtetan izandako handiena; De Kooning-en, Pollock-en, Rothko-ren, Still-en eta beste batzuen lanak izango dira erakusgai Londresko Royal Academy of Arts-ekin lankidetzan antolatutako erakusketa honetan. Amaitzeko, Georg Baselitz-en *Heroiak* saila —1960ko hamarkadako arte alemaniarren adibide bikaina—, Film & Video aretoko Pierre Huyghe-ren *Titulurik gabea (Giza maskara)*, Ken Jacobs-en *Gonbidatuak* eta Amie Siegel-en *Negua* bideolanak eta Guggenheim Bilbao Bildumako maisulanen aukeraketa bat erakutsiko dira —hautaketa hori orain ere ikusgai dago, hirugarren solairuko areto ez klasikoetan—.

Azkenik, Patronatuak 2015–2017ko Plan Estrategikoaren ekimen batzuen garapena ikertu zuen eta 2017an beteko den Museoaren 20. urteurrenaren ospakizunaren ardatzak aztertu ditu.

Bilbo, 2016ko ekainaren 20a